

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresaren diru-sarrera nagusia salgaien salmenta izango da, gure kasuan, SMARTSHOWERen salmenta. Gure prezioak eskuragarriak izatea nahiko genuke familai eta pertsona orok erosteko ahalmena izateko, baina, hala ere, bozgailuen erosketak eragina du ekoizpen kostuan eta horrek dutxaren prezio eragiten du.

Gainera, aplikazioaren garapenak eta mantentzeak gastu bat dakar enpresarentzat, eta hori azken prezioan ere islatzen da. Hau guztia kontuan izanda, erabaki dugun prezioa 41,99€ izan da.

Ordainketari dagokionez, bakarra edo errepikaria izan daiteke, hau da, bezeroek zuzenean ordaindu dezakete produktu guztia edo zati bat ordaindu dezakete hilabetero, inolako interesik gabe.

